



Esp.kodea: 2025PHEL0007
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: Peoia 1 (igeltseritza)

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPEN A
Peoia (igeltserotza)	Obra lan taldearen ezohiko lanetarako errefortzuko taldea.	% 100	6 hil.

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Kontratutako pertsonak langabetuak izan beharko dira, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan lan-eskatzaileria gisa altan egon, bai hautagaitza dena delako enplegu-eskaintzatarako bidaltzen duten momentuan bai kontratua hasteko egunaren biharamunean.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Debagoiena Eskualdeko udalerri batean erroldaturik egotea.
- Ezingo dira kontratatu erakunde berak aurretik kontratatu dituen pertsonak 2024ko ekitaldirako enplegu-sustapeneko toki-ekintzetarako laguntzen deialdietan edo 2024ko ekitaldirako EAEko EGF Plus 2021-2027 programa operatiboaren esparruan toki-erakundeek gazteak kontratatzekeo laguntzen deialdietan kontratatuak izan diren pertsonak.
- B gidabaimena.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera.

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako merituak baloratuz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:

- Udaleko karrerako funtzionario bat.
- Karrerako funtzionario bat edo lan kontratudun finkoko langile bat.
- Udaleko karrerako funtzionario bat.



Esp.kodea: 2025PHEL0007
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: Peoia 1 (igeltseritza)

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

- Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
- Tel.: 943 252000
- baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Merituak: (50 puntu)**

- Deialdia egin eta 6 hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea: 10 puntu
- Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
- 55 urtetik gorakoa izatea: 5 puntu
- Luzaroko langabeak: 5 puntu. Luzaroko langabetzat joko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda dauden langabeak, gutxienez 360 egunez kontratazioaren aurreko 540 egunetan.
- Emakumea izatea: 5 puntu.
- DSBE/BGDSaren titularrak edo onuradunak: 5 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- Lan eskarmentua: igeltseritza lanetan egindako hilabete oso bakoitzeko 0.5 puntu, gehienez 5 puntu. Lanaldi partzialean egindako lanak jardunaldi osotzat hartuko dira.

- **Probak: (50 puntu)**

- *Proba teoriko-praktikoa:* Lanpostuaren funtzioekin lotutako proba teoriko-praktiko bat edo gehiago egingo dira. Ahoz, idatziz edo/eta praktikoa izan daitezke. Gehienez 50 punturekin baloratuko da eta Epaimahaiak aldeztutako erabakiko du proba bakoitzean lortu beharreko puntuazio minimoa prozesuan aurrera egiteko.